



## **2016KO MAIATZAREN 20KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2016ko maiatzaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 31 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (129.765,50 €)takoa onartzea erabakitzen da.

### **III.- UDAKO KIROL KANPAINA.-**

Kirol Batzordetik Udako Kirol Kanpaina 2016 egitasmoa aurkeztu da. Kanpaina hau ekainaren 22tik uztailaren 19ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua hamalau mila bostehun eta hirurogeita zortzi eurokoa (14.568 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta Foru Aldundiko dirulaguntza, guztira, bederatzi mila bostehun eta laurogeita sei (9.586 €) euro da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondoren, Udako Kirol Kanpaina 2016 hau onartzea erabakitzen du.

### **IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-**

San Prudentzio jaietan egindako jarduerengatik diru laguntzak emateko Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Lazkao Kirol Elkarte.- Txirrindularitza proba antolatzeagatik, sei mila laurehun eta berrogeita bederatzi euro eta berrogeita bost zentimo (6.449,45 €)ko diru laguntza onartzea. Aurretik 6.000 € eman zitzaiera kontuan izanda, 449,45 € izango da orain emango zaiena.



- Antzar Gazteak Korrikalariak.- I. bikotekako lasterketa antolatzeagatik, bi mila seihun eta berrogeita hemezortzi euro eta berrogeita bi zentimo (2.658,42 €)ko diru laguntza onartzea. Aurretik 1.700 € eman zitzaiera kontuan izanda, 958,42 € izango da orain emango zaiena.

- Domarda Elkartea.- Bakailao lehiaketa eta sardina jana antolatzeagatik, hiru mila seihun eta berrogeita hemeretzi euro eta laurogeita bat zentimo (3.659,81 €)ko diru laguntza onartzea. Aurretik 3.000 € eman zitzaiera kontuan izanda, 659,81 € izango da orain emango zaiena.

#### V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du:

- Antzar Korrikalariak.- XIV. Antzar Krosaren antolaketagatik, laurehun euro (400 €)ko diru laguntza onartzea.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta lau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

